



# ZUBIAK

*Ez dago ezer tristeagorik, tristea izaita baino / horregatik egiten dut parre, malkoak irtetzeraino (Jon Maia, Karidadeko Benta)*

## Sommaire / Nun zer

- ✿ **3. or.** 12.000 manifestants à Bayonne.
- ✿ **4. or.** Remise de trophés par la fondation Alkartasuna à Bayonne.
- ✿ **5. or.** "Txaka Txaka Txa..." Treina.
- ✿ **6. or.** Euskal Herriko Laborantza Ganbara au tribunal !
- ✿ **7. or.** Soutien de Peire Costa, secrétaire de R&PS à EHLG.
- ✿ **8. or.** Gogoeta, P. Egiazabal : "Ekaitza heldu ote?"



Premiers prix de la fondation Alkartasuna donnés en Iparralde à D. Albizu, J. Casenave et A. Darraidou (p. 4)

## GAIA / THEME Elections autonomiques du 1er mars

### Unai Ziarreta

Jeune avocat, ardent abertzale basque, élu de sa commune natale de Mungia (Bizkaia), Président de la formation abertzale et social démocrate Eusko Alkartasuna, porte parole de ce dernier au Parlement de Gasteiz / Vitoria. Candidat EA à la Présidence de la Communauté Autonome d'Euskadi, à la tête d'une équipe déterminée de candidats de Araba, Bizkaia et Gipuzkoa décidés à proposer aux électrices et électeurs de la Communauté Autonome Basque un vrai changement pour cette partie du Pays Basque. A savoir jeter au moins les jalons du souverainisme basque. Car, dit-il, « le vrai changement positif possible aujourd'hui pour le peuple basque ne peut provenir que de là ! »

*Bizkaitarra eta ofizioz abokatua, EAko lehendakari azken kongresuaz geroz, Gasteizko Parlamentuan bozeremaile, Unai Ziarretak euskal abertzaletasunaren ikurriña gora darabillkigu mar-*

*txoaren leheneko hauteskunde autonomikoeri buruz : Euskal Herriak Europan hain beharra duen subirautzaren alde.*

**Extraits de son discours de précampagne au Forum Nueva Economía de Madrid le 2 février dernier devant une foule de médias (les interstices sont de la rédaction).**

« Je veux ouvrir cette conférence en adressant mes remerciements à Nueva Economía Forum pour son invitation à ouvrir ici les portes du débat et de la confrontation d'idées, ce qui constitue pour moi la seule manière pour qu'une société se développe et s'enrichisse. Merci aussi de donner la parole à ceux qui trop souvent sont réduits au silence ou honteusement caricaturés. Il est bon en effet

qu'on connaisse aussi à Madrid l'opinion et les défis pour le futur que nous déployons – et ce directement et sans intermédiaires – nous qui ne partageons pas le discours politiquement correct qui a cours dans l'état espagnol par rapport au Pays Basque.

De même que je veux saluer la présence ici, à mes côtés, de camarades d'Eusko Alkartasuna qui m'accompagnent et tout spécialement les Conseillers du Gouvernement Autonome Basque, Joseba Azkarraga, Esther Larranaga et Tontxu Campos. **(suite p. 2)**



Ziarreta, Garaikoetxea eta Errazti lehendakari ohien artean, eta Azkarraga idazkari nagusia ezkerrean

## Analyse de notre situation politique

Vous m'avez invité à analyser la situation politique de mon pays en vue des élections du 1er mars prochain. Les citoyens basques ont en effet ce jour là un rendez vous spécialement important avec les urnes. Par pur principe démocratique, les élections sont toujours importantes mais dans ce cas présent, elles le sont encore davantage parce que ce qui est en jeu n'est pas l'identité du prochain Lehendakari (Président) mais parce que la société basque joue bien plus que cela. Ce que nous devons décider en réalité dans les urnes, c'est de savoir si nous posons enfin les fondements d'un nouveau cadre légal qui nous conduise à la Paix et à la Normalisation politique ou si, au contraire, nous continuons à être rivés à un cadre, celui du Statut actuel et de la Constitution en vigueur, quand les deux ne sont pas en fait aptes à procurer une réponse adéquate à nos nécessités sociales, économiques et politiques. Quand de plus, ce cadre ne sert en rien à résoudre le conflit politique basque de fond mais contribue plutôt davantage à son enkystement.

Aujourd'hui réapparaît de nouveau quelque chose qui demeure inscrit par le Président Garaikoetxea dans ses mémoires « La transition inachevée ». L'état espagnol continue encore

aujourd'hui sans avoir résolu la transition de la dictature à la démocratie.

Encore en plein XXIème siècle, persiste la conception centraliste et unitariste de l'Espagne propre au franquisme ; cette idée de nation unique qui maintient encore ouverts les conflits politiques au Pays Basque, en Catalogne et dans une moindre mesure en Galice aussi.

Il est certain que durant cette période, au chapitre des droits individuels il y a eu d'énormes avancées, de même qu'il est évident que l'Etat (espagnol) n'a pas voulu défaire le nœud relatif aux droits collectifs. Plus grave encore, ces dernières années, depuis l'adoption de la « Loi des Partis » et son refus d'affronter la reconnaissance des droits collectifs, tout ceci est en train de provoquer un retour en arrière progressif en matière de droits individuels également. La victime est, en définitive, la société espagnole elle même.

Il paraît même paradoxal dans une certaine mesure que ce soit les abertzale qui, en revendiquant un nouveau cadre légal pour leur pays, soient eux, ceux qui contribuent à l'achèvement définitif de cette « transition inachevée ».

## Pour un vrai changement

Je pense sincèrement que soufflent au Pays Basque des vents du changement. Pour un changement

réel. Celui dont a besoin la société basque. Non celui que proclame quotidiennement Patxi Lopez (PSE). Le candidat socialiste est un mauvais imitateur d'Obama. Son changement est un simple : « Ote toi de là que je m'y mette ! ». C'est la soif du pouvoir. Pure et dure.



Unai Ziarreta, EAKO lehendakari

C'est là que prend racine l'essence de la lutte électorale entre le PNV (Parti nationaliste basque), le PSE (Parti socialiste) et le PP (Partido popular). C'est là une lutte pour s'accaparer le pouvoir pour continuer à gérer un Statut totalement dépassé. Ni plus ni moins.

Mais ce n'est pas là le changement que réclame la société basque. Aujourd'hui nous sommes une large majorité qui affirme que le changement dont a réellement besoin Euskadi consiste à rompre l'étroit corset statutaire et constitutionnel et à faire des avancés sûres et fermes vers un nouvel espace de paix où tous les projets peuvent non seulement être défendus mais encore menés à la pratique par des voies démocratiques. Même l'indépendance si c'est cela que réclame une majorité.



Unai Ziarreta lors du meeting du dernier Alkartasun Eguna à Laudio

## ✿ EN AVANT EHLG !

**Il est heureusement permis encore de traduire ces quatre initiales EHLG en « Chambre d'agriculture du Pays Basque » que nul ne confond évidemment avec celles de la CAPA (Chambre d'agriculture des Pyrénées atlantiques toute à la dévotion particulière du Béarn). Toujours est-il que nous aussi à EA nous avons participé au procès fleuve intenté par le préfet des PA à cette institution associative basque et partagé bien sûr, les bons moments réservés à un chacun et chacune sous le chapiteau dressé fièrement tout à côté du Palais de Justice à l'entrée du Trinquet Moderne toujours si accueillant.**

Ez ginuen hutsegitekoa guk ere, EAKoek, Euskal Herriko Laborantza Ganbarari Parisetik Pauen gaindi egina izan zaion auzi bitxi bezain behargabekoa. Aski zuzenkontrakoa azkenean! Zinez! Eta bildu dela hor jendea! Berdin bi milaz goiti, denek beren sustengua EHLGri eta hunen lehendakari Mixel Berocoirigoin Gamartiarrari ekarri nahi hurbildik.

Egia erran zinez harrigarritzko lana egina izana zen beharrik zenbait aste lehenagotik et alde guzietarik, herriz herri, eskualdez eskualde, edozoin ideiatako jendeak lanoki bilduz. Horien guzien kudeaketa ez baitzen nola nahikoa!

Ondorioak ere hor: auzapezak eta eskualde eta departamenduko kontseilariak dotzenaka, axuant eta herri kontseilariak ehunka, eskualdetan ere milaka jende beren atxikimendua ematen zutela. Noiz ikusi da herri puska hau hola iratzarria eta xutik jarria? Ozenki erraiteko lau haizetara eta prefetaren beharrietaraino EHLG-k abiatua duen lanak aintzina joan behar duela nehork artetik ziririk sartu gabe hoin arinki!

Zeren izenean bipildu behar gaituzte egundainokotan? Goresmenak ere, besteak beste, Gérard Onesta eurodeputatuari, halaber José Bové laster Gérard-en lekua hartu behar lukenari, berdin Peire Costa R& P.S. (Régions et Peuples Solidaires) federazioko kudeatzaile okzitandar suharrari, hau ere Okzitaniako Béziers-etik hunarautua mezu berezi bat eskuan.

Esperantza ez dugu galduko zuzenbidea, eskubidea edo dretxo argiki mintzatu arte. Gu ere, EAKoak segurik, hor hurbil izanen baigara bestekin, zer nahi gisaz auzi hori bururaino irabazteko.

## ✿ 12.000 MANIFESTANTS A BAYONNE !

**Le matin même du procès à EHLG, les vieilles rues et places de Bayonne ont bien frémi avec le déroulement impeccable de la manifestation unitaire la plus importante jamais vue sur les lieux. C'est que les gens en ont vraiment marre du système socio économique actuel qui les enserre de plus en plus. Malgré les bonnes et habiles paroles du chanteur sarkosyen.**

Nehozik ikusi denetz Baionan 12.000 manifestari elkarretaratzen "aski ta aski!" erraiteko gutiz gehienek, joanago eta gehiago, bizi duten xixtima maltzur huni. Ixtantean ez baitzauku kasik pilik ere geldituko sakelan! Eta frangok bezperako ogi zaharretik ere jan beharko baitute berdin biharamuean ere!

Alta gain hoitan, miliarrak harat hunat dantzan direlarik, betikoek (ongi zainduak) palataraka darabiltzatarik urre eta zilar, burtsa eta moltsa lurraren hegal batetik besterat,

jostetan bezala. Hainbeste gerlen eta goseten gainetik edo bazterretik gainerat! Hauze da giza molde ilun eta ahalginkarria!

Zer nahi gisaz, pobreak geroz eta pobreago! Alta Sarkosyk besterik zaukun hitzemana aho beteka duela bi negu, iduri eta lehengo historia saindu hartan bezala desertuko ogiak biderkatu behar zituen jainko berri batek bezala.

Alta, aspaldi errana zaukun Coluche batek ere: "Zer, krisa heldu dela? Krisan garela? Bainan askok ez dugu besterik ikusten haur denboraz geroztik ere!"

Hortakotz baita, lekuan lekuka, bizia, ahal den guziena, ekonomia eta sozial sailan, berdin beste mailatan ere, hobeki antolatu behar ametssetako lukainka batzuen ondotik ibili gabe!

## ✿ ZIARRETA PRESIDENT !

**Les slogans ne manquent fichtre pas à l'approche du verdict des urnes au soir du 1er mars, à l'occasion des élections qui doivent se dérouler dans la Communauté Autonome d'Euskadi. La question centrale – évitée soigneusement par bien des formations surtout espagnoles, à vrai dire – finira sans doute par être celle de la nécessité de la Paix et du changement politique pour y arriver.**

**Unai Ziarreta, candidat d'EA, est, au départ, pratiquement le seul à y faire référence, en proposant la constitution d'un pôle souverainiste basque – difficile, encore certes, à mettre en place – mais unique moyen de prendre politiquement le dessus sur les prétentions de l'ETA d'une part et sur celles aussi inadmissibles du gouvernement de Zapatero et de ses alliés espagnols tant de gauche que de droite.**

Segur ez direla falta oiuhu beroak Lehendakarigai hunen edo bestearen alde! Bainan zeren egiteko?

Unai Ziarreta, Eusko Alkartasunaren kandidatuak segurik ez du gogoia saldua, ozenki erraiteko Euskadik behar duen bide berriak euskal subirautza edo beregaintasunaren aldekoa izan behar duela. Gisa hortan ETAREN pretentzioak bai ta Espainol gobernuarenak bere lekuan bailegozke. Ezin baita urteak eta mendeak egon orain arteko ingurumaria edo buruhaustearikin, ezin jakin azkenean garbiki ean Euskal Herririk ere ote den egiazki eta hala balinbada... bere gain izateko eskubiderik eta molderik duen beste hainbeste Europako erresuma edo errepublika berezik bezala.

Bide horri baketsuki bainan fermuki abiatzea ez da aireburuka egin beharko EAKo Lehendakariaren arabera. Bainan noizbait argiki abiatu beharko dela hortik ez da dudarik.

Eta baditeke, jende andana batek aldi huntan ere, gogoetak ongi eginen dituela EA bezalako alderdi bati bere konfiantza emateko: berdin ekonomia eta sozial krisiaren kudeatzeko bereko ez baita nihundik mirakuilurik igurikatu beharko. Salbu beharbada gehienik Euskal Herritik beretik.

EAK urratu nahi duen bide berriak ez lezoke kalterik ekar nihundik ere denen buru euskal gobernu abertzale zabal bat antolatzeke, ahalaz oraikoa baino indartsuagoa bainan ere Espainiari beti baimen eskatzen ibiliko ez dena.

Horri ariko gara Lapurditik ere ahal dugun EAKo guziak.

# PRIX ALKARTASUNA SARIAK

## REMISE DE TROPHEES PAR « ALKARTASUNA FUNDAZIOA » A BAYONNE

La Fondation Alkartasuna « solidarité », sise à Bilbao et créée depuis 2004, se consacre, année après année, à l'organisation de conférences de haut niveau et rencontres diverses ayant trait aux spécificités du peuple basque, en insistant sur les valeurs de **démocratie participative**, de **recherche** et **d'innovation** devant affecter la vie sociale des habitants du Pays Basque tout entier.



Eskerretik eskuinera, Andde Darraidou, Junes Casenave eta Danielle Albizu. Alkartasuna fundazioarengandik merexitako saria errezibitu dute.

Poursuivant dans le même sillage, elle a organisé le 22 janvier dernier à la **salle de Conférences du Trinquet Moderne de Bayonne, le jeudi 22 janvier**, une remise de trophées originaux des mains de Piarres Ainciart, président d'Euskaltzaleen Biltzarra, qui remplaçait pour l'occasion le Président en titre de la Fondation, le Professeur **Jabier CANO**, Juriste, ancien doyen de la Faculté de droit de Deusto (Bilbao) et ancien Conseiller du Gouvernement Autonome Basque, hospitalisé en dernier moment.



Piarres Ainciart, Euskaltzaleen Biltzarreko lehendakaria izan da sariak banatu dituen.

Les heureux récipiendaires sont pour cette année trois pionniers fort méritants de la vie socio culturelle et économique du Pays Basque. :

- **Danièle ALBIZU** d'Urrugne (ancienne enseignante ayant largement contribué à l'animation de nombreuses associations éducatives et culturelles basques, ancienne présidente d'lkas, artisan de cours de basque aux adultes, ancienne conseillère municipale d'Urrugne etc..).
- Le Père **Junes CASENAVE**, curé en Soule et écrivain basque prolifique, auteur de pastorales réputées comme de nombreuses autres œuvres en euskara.
- **André DARRAIDOU**, hôtelier, ancien maire d'Espelette qui s'est largement impliqué dans les domaines socio économiques de la région et de ses collectivités publiques.

Les trophées en question consistent en une « Croix basque ou **Lauburu** d'honneur » en métal fin et d'un diplôme spécial Alkartasuna, deux créations originales conçues à l'intention de la Fondation Alkartasuna, le premier par les Etablissements Madilar, orfèvre à Bayonne, le second par les presses de l'Imprimerie Artisanale.

Zubiak s'associe évidemment aux félicitations tant méritées de ces trois heureux récipiendaires. Bai ! Biba zuek !



Jendeak mukurru bete zuen sariak banatu ziren gela (lehen lerroan, Koldo Amezketa Nafar parlamentaria).

## PUNTUEUS

Interneteko eremu birtualean euskarari nazioarteko aitortpena eskainiko dion ikur edo sinboloa sortzea, .EUS domeinua lortzea, helburu duen elkarteak aurkeztu berri da:

<http://www.puntueus.org/eu/>

ICANN (*Internet Corporation for Assigned Names and Numbers*) erakundeari aurkeztu behar zaio domeinuaren eskaria. Domeinua sortzeko irizpideetan, besteak beste, ekimen horri zenbat jende bere atxikimendua erakusten duen kontuan hartzen da. Denek parte hartzen ahal dugu beraz xede hortan, web gune huntan gure atxikimendua emanaz:

<http://www.puntueus.org/eu/atxikimenduak/?atxikitu=bai>



## OI EGUBERRI GAUA!

La période de Noël est sujette à un surplus de consommation qui produit beaucoup de déchets. Bil ta Garbi recommande d'offrir des cadeaux qui en produisent le moins possible, de favoriser des décorations naturelles et attire l'attention sur la nocivité des piles non rechargeables.

Herri batzuetan, Eguberri argi erre-tzeak ttipituak omen dira, batzuek LED argi baso ekologiko horietarik erabiliz Miarritzen bezala edo argitze denborak ttipituz. Etxetako argitxo girgilek ez lukete biziki erretzen.

Eta izaia? Erroekin erosiz geroz ez liteke botia, landatzeko tokia balinbada...

Bertzalde, besta horietan, mahainan ezartzen diren paperezko estalgi ta zerbitak, nun ez diren suaren pizteko atxikitzen, zikin ontzira badoaz. Orduan?... Amaia Lissalde, Bil ta Garbikoak gomendatzen ditu opariak ere, ahalaz ondakin guti sortzekoak egitea. Zer erran pila hoiekin ibiltzen diren jostailu ta tresnetaz? Egin ahala pilak karga daitezken horietarik erostea, orroitzu botatzen direnak ondakin lanjerosak direla. Horiek hola, urte on deneri!



Les lumières basées sur les LEDs dépendent moins d'énergie électrique

## BILDEGIZ BILDEGI

Le syndicat de la Communauté de Communes d'Hasparren, Garbiki, a réhabilité les décharges sauvages d'Iholdy et de La Bastide Clairence.

Bizi Garbia, syndicat qui regroupe les villages des alentours de St Jean de Luz projette d'installer des éoliennes de petite taille, de récupérer le biogaz de son centre de Zaluaga, d'y installer des panneaux solaires et d'augmenter les quantités traitées.

Hazparne herrialdeko Garbiki ondakin zindikatak, Bastida ta Iholdiko

basa bildegiak garbitu ditu. Ondarkin ixurgaien oztopatzeko, toki hoiek iragaiztu ta landarestatu ditu. Bertze hamalau gisa hortako toki garbitze ere, geroago egitekoak litezke.



Petite éolienne innovante de Nheolis

Bizi Garbia, Donibane Lohitzune inguruko herrietako ondakineta axolatzen den zindikatak bere 50 langilekin Senpere Zaluagako lurperatze gunen hortan, inguramena errespetatzen duen energia garatu nahi du: "éoliennes" horietarik jarriz, ttipiño batzu, ondakineta jaltzen den biogaz delako hori eskuratuz ta eremu handi batean, iguzki bilgai zaflak ezarri. Lan batzu ere egin nahi lukete ondakin gehiagoren lantzeko. Geroxago, kamioiak lekuko oligoarekin ibilarazteko, laborari batzuekin hitzartzen ari dira, iguzki loreak erein ditzaten.

SarrikotaPeko ondakin bildegia, Bil ta Garbi zindikataren kamioieri debekatua izan ondolan, epaileak berriz idekitzea erabaki du. Xiberoako ondakinek ez dute beraz gehiago Senperera joaiterik 25.000 euro hilabete bakotx xahutuz.

## TXAKA TXAKA.TXA, TREINA

Le TGV Hendaye Paris connaît des retards répétés qui seraient dus à un mauvais entretien du réseau... Pas d'argent ?

Nos 6 maires de la Communauté de Communes Nive Adour (autour de St Pierre d'Irube) demandent que les voies actuelles soient optimisées. Le Conseiller Général

Alain Iriart fut le seul à voter contre le financement de 53 millions. La CABAB a voté le financement pour Tours Bordeaux. Quant à Michelle Alliot Marie, elle a déclaré ne pas comprendre qu'on dépense tant d'argent pour gagner 3 mn (au Pays Basque).

Hendaiatik Parisera doan TGVA hartzen duten bidaiariak badakite bide horren traka txarraren berri. Zonbait denbora hauetan gertatu arazoan iturria liteke ez dela behar bezala atxikia burdinbide hori, funtsean, Garazikoaren gisa, nahiz ez hein berean... Nolaz ez diren lehenik horiek antolatzen, beharrik gabeko burdinbide berri bati lotu aintzin. Sarkosyrentzat ekonomiaren xede bultzataile bat liteke hori. Ez gira gora!

Nive Adour herri elkargoko auzapezak (Hiriburu ingurukoak) jadanik ditugun burdinbide horien hobetzearen alde agertu zaizkigu. Alabaina, dirua eskatua zaie jakin gabe ere bide berri hori nundik pasatuko den, beraz "chèque en blanc" bat izenpetu behar lukete. Nork egundaino ikusi du holakorik? CABAB erakundeak, Tours Bordeleko zatiarentzat galdegin diruaren emaitza bozkatu du. Gaineratikoarentzat ikerketa batzu egin beharrak dira.

CADE elkartegoaren arabera, Lausanneko "Ecole des Mines" delakoak egin behar lituzke bere sendotasunaren ta azkatasunaren gatik famatua baita. Entzuna izanen dea? Azkenik Alliot Marie anderea ere mintzatu da argiki Euskal Herriko gunen huntan 3 minutaren irabazteko ez duela balio holako lanik ibiltzea. Araiz gobernukide duen Bussereau minixtroarekin ados jarriak dira.



Ne faudrait-il pas mieux bien entretenir les lignes actuelles (Baiona - Garazi, Paris - Hendai...) avant de penser à la construction de nouvelles lignes?

(segida ondoko orrian)



## GARAPEN IRAUNKORRA

**Le lycée Louis de Foix de Bayonne propose des formations concernant le développement durable. Par ailleurs, des entreprises organisent aussi des rencontres concernant ce développement durable.**

Louis de Foix Lizeoko erakasle taldeak garapen iraunkorra ere ezarri du bere ikasketa eskaintzetan, argi indarraz ikasketak egiten dituzten ikasleri ta arrakasta ukan du. Gai nagusia "ura" zuen Zaragozako erakusketan izan dira ta Bardenas etara ere joan beharrak dira aerosor-gailu edo "éoliennes" famatu hoién ibilmodeaz jakitate bila. Bere ere badute lanpa baten hornitzeko, aerosorgailu ttipiño baten eraikitze xedea, teknika berezi batzu erabiliz, xede hori 500en artean hautatua izan delarik.

Lanean hasiko direlarik, gazte horiek ingurumenaren errespetua ukanen dukete. Biba horiek!

Bertzalde, abendo hortan berrogei bat lekuko enpresa bildu dira, garapen iraunkorra zutela mintzagaia: eraikidura HQE ("Haute Qualité Environnementale") energia xuhurtasun, berexketa ta holako.



## EHLG

**Au tribunal ? Une structure qui favorise une agriculture durable, qui aide nos paysans locaux à nous fournir des produits bons pour notre santé ? On marche sur la tête !**

**Ecole publique, Ecole privée, même nom, mêmes programmes, mêmes examens. Conclusion ? Procès ?**

**Pendant ce temps, la Chambre de Pau fait la promotion du Roundup reconnu nocif.**

Eskola publikoa, Eskola pribatua, egitarau bera, azterketa berak. Ez dut entzun auzirik izan denik nahasketa zerbait sortu zitakelako izen horiekin.

Aldiz laborariak, gure osagarriarentzat on diren jangaiak hornitzen laguntzen dituen Euskal Herriko Laborantza Ganbara auzitegian? Zer pasatzen da?



## EHLG travaille pour une agriculture biologique

Bertzalde, ez ote du Paueko ganbaraño horrek Monsanto laguntzen jende, aire, lur, ur pozoindatzen dituen *Roundup* famatu horren saltzen? 09-01-8ko S. Ouest ean diote Caen hiriko unibertsitari batek, ikerketa batean adiarazten duela, jendeen osagarriarentzat *Roundup* hori lanjerosa dela hein biziki ttipian ere. Bixtan dena, Monsanto ezetz dioela! Bere salgaia zuzentzat damugarria dela erranen dizuen saltzaile bat ezagutzen duzu?

Orduan Paueko Ganbara hori jendeen osagarriarentzat ta segurantza sozialarentzat, ala Monsantoen zerbitzuko ari da lanean?

## LGV2, DERNIÈRES NOUVELLES !

**Aux dernières nouvelles, il semblerait que tout soit déjà décidé en haut lieu. L'inutilité publique aurait-elle raison de l'utilité publique ?**

**Les décisions fondées des élus et les vrais besoins des citoyens concernés sont superbement ignorés. Et la démocratie dans tout cela ?**

Azken berrietan jakiten da prefetak muntatu biltzar batean RFFko Maudet-ek ez duela biziki xehetasunik eman hautetsieri. Karta bat erakutsia izan zaie, zubi batekin Aturri gainean, Lehuntze gune batean. Mugerre ekialdea, Hiriburu guzia, Milafranga guzia, Arruntze, Ahetze, Arragoitze, Arbona, Basusarri ere hunkiak litezke. Senpere eta Azkaine ere nahiz gutiago. Hautetsiak kexu zirela ez da erraite beharrik. Hor ikusten da zer heinetako demokrazia bizi dugun.

Kattalin Gorri

## HAUTUEN TENORA HURBIL...

Ekainaren 7an, Europako hauteskundeak direla eta, TGV2 eta bertzek... ukanen dute aipamen segurrenik. "Europe Ecology" mugimenduak argi eta garbi agertuko dauku gaurko gizarteak ez duela ez hemen ez nihun banku moltsa handien hanpatzeko debaldeko obra alimale edo herraldoirik nahi eta leku utzi behar dutela giza neurri zuzenagoeri: giza garapen edo aitzinamendu neurtuago eta zunenagoari!

## MICHEL BERHOCOIRIGOIN, EHLG-REN LEHENDAKARIA ESKERRAK : « MILESKER HANDI BAT DENERI! »

Urtarrilaren 29ko ezohizko egun biharamun honetan, zuetarik bakotxa eskertu nahi dut bihotz bihotzetik, auzitegiaren aitzinera etorririk zure sostenguaren ekartzera. Zuetarik bakotxa mobilizatu baita azken hilabete hauetan Euskal Herriko Laborantza Ganbarari sostengua ekarriz eta antolatuz. Ehunka, beharbada milaka laguntzaile zinezten: "Ehunen deieko" izenpedurak biltzeko, afitxak kolatzeko, sostengu gaualdiak antolatzeko, mezuak hedatzeko, ostatuan lan egiteko, taloak egiteko, karpa muntatzeko, informazio bilkurak antolatzeko, "Ehlg doit vivre" bloga sortzeko eta eguneratzeko, etab... 2008ko irailaren 18tik 2009ko urtarrilaren 29ra mugimendua azkartuz joan da, zuen engaiamenduari esker. Ez da estonatzekoa sostengu Biltzar Nagusiek, Euskal Herriko Laborantza Ganbararen laugarren urtebetetzeak eta urtarrilaren 29ko egunek indar emendatzea ezagutu balin badute, determinazio, lasaitasun, emozio eta itxaropenaren aldetik.

Bere geroaren jabea, demokratikoa, pluralista eta munduari idekia den Euskal Herrian parte hartzen duen egiazko sozial mugimendua eta laborarien proiektua juntatzen ditu Euskal Herriko Laborantza Ganbarak. Euskal Herriko Laborantza Ganbarari zentzua eta irauteko indarra eman dion prozesu historiko luzearen fruitua da. Horrez gain, erreferentzia bat da, sinbolo bat, abentura herritarra, interes handirekin behatu behar dena. Ezin da hautsi ez eta desegin.



Michel Berhocoirigoin, président de EHLG

Aitortzen dut ardura handi bat senditu dutala auzi egun hortan, Baionan: laborari diren eta ez direnak bateratzen dituen sekulako abentura horren heinean izaita. Uste dut dena ontsa pasatu dela eta, bakotxari esker, goi mailako auzia izan dela, kanpoan aldiz jendea saldoka biltzen zelarrik, kartsuki eta bozkario handian. Bai! Urtarrilaren 29ak ondorioak ukanen ditu. Denak, zuek eta guk, Historio horren aktoreak gara.

Berrez ere milesker deneri, zuetarik bakotxari, eta laster arte...

Michel Berhocoirigoin

## PEIRE COSTA, SECRETAIRE DE R&PS, PRESENT A BAYONNE LE 29 JANVIER : PROCES DE LA CHAMBRE D'AGRICULTURE DU PAYS BASQUE « L'ETAT CONTRE LA VOLONTE POPULAIRE » (EXTRAITS DE SON COMMUNIQUE)

Régions et Peuples solidaires (R&PS) fédération des partis régionalistes et autonomistes de l'Hexagone (dont est aussi co-fondateur Eusko Alkartasuna) est solidaire de l'Euskal Herriko Laborantza Ganbara et condamne la démarche de la préfecture pour les raisons suivantes :

- EHLG a pour but la promotion d'une agriculture paysanne qui se démarque de la chambre d'agriculture française par son engagement dans le bio et le développement durable généralisé et écologiquement responsable ;
- EHLG compense les manques de l'Etat ;
- EHLG mène sur le territoire basque une action de service public comme des milliers d'autres associations en France ;
- Le refus de l'Etat français de créer une Chambre d'agriculture basque est une négation des réalités locales les plus évidentes et un déni de toute démocratie.

## OMORE BILA

### Mes respects !?

Je ne fais que ça ! Respects encore ?

Mais puis-je me livrer à quelques simples questions sur les responsabilités de tant de célébrités politiques ou pas qui, en grands responsables, défilent du matin au soir dans ce qui nous est offert sur la lucarne des chaînes télé françaises ?

J'appelle comme tant d'autres, désespérément presque, depuis 14 jours pour qu'on me rétablisse ma ligne téléphonique en dérangement pour cause de tempête. A raison de 8 coups de fil environ par jour depuis le 4ème de panne, cela fait bien près de la centaine... Et pour s'entendre quoi ? Un disque qui me répète comme sur les bornes d'autoroute « En raison d'un nombre important d'appels... nous sommes au regret de... Toutes nos équipes se déploient sur l'ensemble de la France... etc... ». C'est touchant pour la France, allez ! Et pour ce Pays Basque ?

Toujours est-il que c'est bien moi et non la France qui paierai les appels depuis mon portable. Mes respects encore ! Mais où sont donc tant d'équipes de S.A.V (Après vente) supprimées si prestement ? Faute à quelle tempête ? Météorologique, politique, financière ? Responsabilité des citoyens comme vous et moi ou celle de tous ces grands pontes qui se remplissent les poches à raison de 10, 20, 50, peut-être même 100 fois le ou la simple citoyen(ne) travailleur(se) ? En supprimant précisément tant de postes d'assistance de proximité. Allez, j'ai encore mieux compris le cirque.

Mes respects ? Bien courts, cette fois, pour tous ces pdg ! Ca va, non ?

Larreko Manex

## EKITALDIAK

**Otsailak 13 - 27:** EAEko boz kanpaina. EArena hurbiletik segitzeko ikus [www.euskoalkartasuna.org](http://www.euskoalkartasuna.org) web gunean.

**Otsailak 22:** 12:00-etan, EAren ekimen nazionala (7=1) Donostiako Kursalen.

**Otsailak 22:** 16:00etan Donibane Garaziko elizan "Resto du coeur"-en aldeko kantaldia.

**Martxoak 1:** Mascarade à la place d'Aussurucq, à 15h30, organisée par les membres de l'association Etxahun de Barcus.

**Martxoak 1:** Hauteskundeak EAEn (Araba, Bizkaia, Gipuzkoan).

**Martxoak 7:** Spectacle de danse Ufaka Zanpaka à Mauléon, à 21h00 au Jai Alai, par la compagnie Herri Soinulariak.

## ABONNEMENT HARPIDETZA

15 € urtean / par an

Izena / Prénom : .....

Deitura / Nom : .....

Helbidea / Adresse : .....

Txekez / Par chèque

Intsulduketaz / Par virement :

• Euskadiko Kutxako 3035 0059  
83 0590078339

• Crédit Agricole : 16906 10028  
51017066341 95

✉ **ZUBIAK, 34 rue  
Pannecau, 64100 Baiona**  
e-mail : [aldizkaria@zubiak.org](mailto:aldizkaria@zubiak.org)

☎ 0559255098

Fax : 0559255098

[www.euskoalkartasuna.org](http://www.euskoalkartasuna.org)

[www.zubiak.org](http://www.zubiak.org)

Parti Socialdémocrate  
Basque  
et fédéraliste européen



ZUBIAK, n°30  
ISSN 1771-0464

Imprimeur : Imprimerie Artisanale, 14 rue

Pannecau, 64100 Bayonne / Baiona

Editeur : Zubiak, 34 Pannecau, 64100 Baiona

Prix : 2 €

Date : 2009 Février / Otsaila

## GOGOETA

## REFLEXION

### EKAITZA HELDU OTE ?

"Burua galdu du!" erranen dute batzuek... "Aspalditik jina da ekaitza! Pasatua ere... eta bat baino gehio izan dira gainera!". Egia da ez dugula nehoiz halako arorik ikusi, ekaitzaren ondoren berriz ere ekaitza, eta ekaitza... Baina ez dut aroz mintzatzeko asmorik hemen, ez eta ere Lapurdiko astekari politikoaz.

Martxoaren 1ean Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) legebiltzarkide berriak hautuko dituzte Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia biziaren lehenak. Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Xiberuan, gehienak hauteskunde horietaz futituko dira, edo Espainiako parte bateko hauteskundeak bezala ikusiko dituzte. Alta, ez ote dute ondoriorik izanen horko emaitzek? Eragina ote du hemen, EAEko lehendakaria, edo gobernu bata edo bestea izateak? Iduritzen zait bereziki euskal kultura, euskara eta hezkuntza izan dezakela eragina.

Azken urteetan, orain arte zituzten tresna mediatiko, politiko edo sozioekonomikoetaz gain, tresna berri bat erabiltzen ari dira alderdi espainiarrak EAEn behingoz boterea lortzeko: gaizki deituriko "justizia" eta alderdien legea hain zuzen ere. Oso tresna eraginkorrak. Horra zer dioten tresna horren manualak: "*Hasteko, giro politikoa ahalik eta gehien tinkatu, Batasuna inguruko jendeak gogor zigortu, kartzeleratu, isundu... Horren bidez jendea polarizatu eta ahalik eta multzo handiena bildu Batasunaren inguruan. Gero gordezko inkestaño batzu egin ikusteko ea polo edo multzo hori gabe, espainiarrek gehiengo ginuekeen EAEko bozetan. Ondoren, inkesten arabera gehiengo hori izanen dugula ikusten bada, multzo hori guzira hauteskunde panoramatatik kendu. Bukatzeko, espainiarren arteko gobernu legitimoa osatu eta gobernu hori jendea are gehiago espainolteko erabili. 4 urteko garantia!*"

Ongi erabiliko ote dute tresna hori EAEko alderdi espainiarrek? Hala bada, oraindik diruz lagunduak ote izanen dira gure ikastolak, laborantza, kultura... heldu diren 4 urteetan? Iparraldeari buruzko berriak izanen ote dea EITBko hedabideetan?... Ekaitza jasan ote beharko du iparraldeko euskal kulturak, hezkuntzak, euskarak etabar...? Ikusiko.

Oso hauteskunde polarizatuak izanen dira, bi *arerio-lagun handiren* artean, PSOE eta PNV-ren artean. EAK, beste alderdi ttipiako batzuen gisan, ekaitza pairatu beharko ote du ere? Bere ttipitasunean, alderdi mamuta den PNVek EAren inguruan du boz gehien lortzea espero. Molde batez erranik EA da beraz PNVren segetuzko arerio handiena. Biak koalizioan joatean, PNVrentzat, EA maizterra zen, orain deus ez. PNVk ez du nehoiz EAren nortasuna onartu, gure inguruko bi estatu mamutek gure euskal nortasuna nehoiz ez duten onartu gisan. Eta espainiarrek bezala, tresna indartsuak ditu ere PNVk. Haien artean EITB, *Euskal Irrati Telebista publikoa* (hahaha...). Zaila da ulertzea zoin *irizpide* erabiltzen duen hedabide horrek berriak zabaltzean, solaskideak edo gomitat hautatzean etabar... Erraiterako hauteskundeak hurbiltzen ziren neurrian, beste hedabide batzuk eginiko inkesta *batzu* zabaldu ditu lau haizetara. Bai, *batzu*, ez denak... zendako? Edo kasu batzuetan ez ditu aipatzen zein alderdikoak diren kargu instituzionalak (auzapez, kontseilari...) eta bestetan bai... ze bitxikeria. Edo herri batzuetako auzapezen zilegitasuna zalantzan ezartzen du, beste batzuen ez... Alderdi batzuetako eragileen diskurtsoa karikatuzatzen du, edo kontestutik ateratzen edo / eta mespresatzen, eta besteena ez...

Egia erran ez nuke nahiko lekuri aldizkari osoa hortarako erabiliz ere bitxikeria guzi hauek aipatzeko. Baina untsa pentsaturik, erabiltzen duen irizpidea oso errexa da ulertzea: PNV nagusia indartzen laguntzea, ondokoen ondoan haren ekintza eta ideien handitasuna eta besteen ttipikeria eta xixtrinkeriak hedatuz... Egia erran ez da hain harrizkoa, jakinik hedabide hortako zuzendari guziak PNVko kargudun garrantzitsuak bihurtzen direla. Askotan entzuna dugu EITB, espantuka, espainiar hedabideetaz trufan, haien erranen partzialtasunarengatik. EITBkoak finagoak dira, baina maisu dira hitza pozointzen.

Ez da hori bistan dena PNVren tresna bakarra. Beste bat aipatzekotan, hedabide eta inkestetaz gain Aralar alderdia ere instrumentalizatu du. Hiru tresna horiek koktel bihurtuz, bereziki EA eta Batasunaren kontra erabiltzen dituela azpimarratuko nuke. Beste maisu lan bat. Biba zuek! Ortuzar, Bilbao, Urkullu & Co, hoberenak zizte!

Halere biziak beti sorpresak emaiten dizkigu... batzuetan, guttien espero denean, gauzak asko aldatzen dira... Norik emanen die etorkizunean pusako bat jaun horiei, zerutik berriz ere lurrerat eror daitezen?

Pettan Egiazabal